



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2001eko apirilaren 19an

43 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege Proiektuak:

—Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileentzako neurriei buruzko Foru Lege proiektua. Aurkeztutako zuzenketak (2. or.).

B SAILA:

Foru Lege Proposamenak:

—Abereen osasunari buruzko Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena. Aurkeztutako zuzenketak (7. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, Mozioak eta Adierazpen Politikoak:

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Oihan Plana betearazteko neurriak har ditzan. Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Batzordeak onetsia (8. or.).

I SAILA:

Parlamentuko Jarduera:

—2001eko martxoan egindako bilerak (9. or.).

—Biltzarreko Idazkaritza Orokorrean 2001eko martxoan sartu diren dokumentuen zerrenda (13. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileentzako neurriei buruzko Foru Lege proiektua

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Biltzarreko Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileentzako neurriei buruzko Foru Lege proiektuari egin zaizkion zuzenketa Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agindu dut. Proiektu hori 2001eko otsailaren 5eko 8 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko apirilaren 5ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

1. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

6. artikulua ordeztzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

“6. artikulua. Hamabosgarren xedapen gehigarriak testu hau izanen du:

Hamabosgarren xedapen gehigarria. 1. Nafarroako administrazio publikoen menpeko suitzaltze eta salbamendu zerbitzuetako funtzionarioei dagozkien gaiak Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileei buruzko xedapen orokorrek arautuko dituzte, salbu eta hurrengo idatz-zatietan xedatutakoan.

2. Suitzaltze eta salbamendu zerbitzuetan, betiere, lanpostu hauek izanen dira:

- Suhiltzaile-ofiziala: A maila.
- Suhiltzaile-ofizialordea: B maila.
- Suhiltzaile sarjentua: C maila.
- Suhiltzaile kaboa: C maila.
- Suhiltzailea: C maila.

3. Suhiltzaile lanpostuak funtzio publikoan sartzeko oposizio bidez beteko dira. Hautaketa proben artean, betiere, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuak emanen duen prestakuntza ikastaro bat egonen da. Ikastaroak dirauen bitartean izangaia praktiketako funtzionarioak izanen dira.

4. Kabo eta sarjentuaren lanpostu hutsak gora-goko kategoriara igotzeko lehiaketa bidez beteko dira, suhiltzaileen eta suhiltzaile kaboen artean. Lehiaketan, betiere, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuak emanen duen gaikuntza ikastaro bat egonen da. Oposizio-lehiaketa horretan parte hartzeko baldintza izanen da, suhiltzaile edo kabo lanpostuan, hurrenez hurren, hiru urteko zerbitzuak egiaz eman direla frogatzea.

5. Suhiltzaile-ofizialordearen lanpostu hutsak oposizio-lehiaketa bidez beteko dira, bi txandatan: barne igoerakoa eta irekia. Igoera txandan Nafarroako edozein administrazio publikotako suhiltzaile sarjentuek parte hartu ahalko dute, baldin eta frogatzen badute sarjentu lanpostuan hiru urteko zerbitzuak egiaz eman dituztela eta erregelamenduz ezarritako titulua, unibertsitatekoa, erdi edo goi mailakoa, badute.

6. Suhiltzaile-ofizialaren lanpostu hutsak oposizio-lehiaketa bidez beteko dira. Nafarroako edozein administrazio publikotako suhiltzaile-ofizialordeek parte hartu ahalko dute, baldin eta frogatzen badute ofizialorde lanpostuan bost urteko zerbitzuak egiaz eman dituztela eta erregelamenduz ezarritako titulua, unibertsitateko goi mailakoa, badute.

7. Aurreko idatz-zatietan aipatzen diren sarrera eta igoera prozedurak ebatzi aitzin, dauden lanpostu hutsak Nafarroako edozein administrazio publikotan lanpostu berdinak betetzen dituzten funtzionarioen arteko lekualdatze lehiaketara aterako dira.

8. Suhiltzaile edo suhiltzaile kabo lanpostuetan aritzen diren funtzionarioek, 55 urte betetakoa destino hauetako bat aukeratu ahal izanen dute:

a) Lanpostu berean gelditzea. Horretarako, osasun azterketa eta gaitasun fisikoko probak gainditu beharko dira urtero, lanpostuan aritzeko behar diren baldintzak dituztela frogatzeko.

b) Dauden zerbitzuan zerbitzu osagarrietako lanpostu batetara pasatzea. Lan horietan aritzen direnek ez dute zuzenean esku hartzen ezbeharreran eta laguntzako eginkizunak betetzen dituzte.

c) Dagokion administrazio publikoan maila bereko beste lanpostu batetara pasatzea, erregelamenduz ezartzen den moduan.

d) Borondatezko jubilazioa.

Aurreko idatzatiko b) eta c) letretan adierazitako destinoak aukeratzen dituztenak atxikitzeke merezimendu lehiaketa ezarri ahalko da.

Eritasuna edo istripua dela-eta, lanpostuaren eginkizunak betetzeko hein batean ezindurik dauden funtzionarioek ere zerbitzu osagarrietako lanpostu batetan aritzera pasatu ahalko dira".

Zioak:

1994ko irailaren 14an Nafarroako Parlamentuak Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuaren Plan Zuzendaria onetsi zuen, Gobernuak igorri ondotik. Plan horren 11. idatz-zatian bildutako "Ondorioak eta proposamenak" dioen horretan hauxe dago:

"1. Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuetako langileei buruzko foru lege bat prestatzea, haien estatutuan zerbitzuak eskatzen dituen ezaugarri bereziak eta bereziki lanbide karrera bat arautu beharra, agertarazteko".

Halaber proposatzen zen "Nafarroako Gobernuak Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuko funtzionarioen estatutua eta Iruñeko Udalekoena parekatzea".

Nafarroako parlamentuak plan zuzendaria onestean hartutako erabakien artean hauxe dago:

"Bigarrena. su-itzaltze eta salbamendu zerbitzuetako langileei aplikatzekoa izanen zaie gainerrako administrazioetako langileen estatutu orokorra, beharrezkoak diren zehaztapenekin".

Zenbait urte iragan badira ere, Nafarroako Gobernuak ez du oraino inolako proiekturik igorri Biltzar honetara su-itzaltze eta salbamendu zerbitzuetako langileen estatutuari zehaztapen horiek eransteke.

Gobernuak orain igorri duen foru lege proiektuan ez dira aipatzen plan zuzendariaren proposamenak, eta lanbide karreraren erregulazioa sargentu lanpostuak goragoko kategoriara igotzeko lehiaketa bidez beteko direla aurreikustera mugatzen da. Xedapen hori gehituko litzaiok estatutuaren hamabosgarren xedapen gehigarrian kabo lanpostuak betetzeari dagokionez ezarririk dagoenari.

Gure ustez, proposatzen den erregulazioa ez da nahikoa, adabaki bat besterik ez da, suhiltzaileak eta suhiltzaile kaboak C mailan birsailkatzeak ekarriko lituzkeen arazoak konpontzeko, eta ez dio heltzen 1994az geroztik bideratzeko dagoen gaiari, alegia suhiltzaileendako lanbide karrera bat erregulatzeari, beste administrazio publiko batzuetan dagoen bezala, eta Nafarroaren kasuan ere beharrezkoa baita.

Zuzenketa honen asmoa da, hain zuzen ere, Parlamentuak 1994ko irailaren 14an erabakitakoa betearaztea eta aldaketaren xede den estatutuari, zehazki, hamabosgarren xedapen gehigarriari, lanbide karrera bat arautzeko behar diren zehaztapenak eranstea, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langile guztiei aplikatzekoak zaizkien xedapenen esparru orokoraren barrenean. Hori guztia plan zuzendariak emaniko ildoan kokatzen da, administrazio guztietako (praktikan, Gobernuak eta Iruñeko Udaleko) langileen egoera parekatuz, kontuan harturik sartuta daudela erakunde bakar batean, Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuaren Partzuergoan. Lanbide karrerarako araubide bakarra erregulatzeko, dudarik gabe, mesedegarria izanen da partzuergo horren funtzionamendurako.

2. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

IV. kapituluaren idazpurua eta 16. artikulua testu honekin ordeztuko zuzenketa:

Langile-talde batzuk B eta C mailetan sartzea.

16. artikulua. Foru lege honek indarra hartzeko unean, kabo edo polizia lanpostuetan ari diren Foruzaingoko edo Udaltzaingoetako kideak Nafarroako Polizia Kidegoei buruzko otsailaren 13ko 1/1987 Foru Legearen 37. artikuluan ezarritako sailkapenaren C mailan sartuko dira.

Foru lege honek indarra hartzeko unean, sargentu lanpostuetan ari diren Foruzaingoko edo Udaltzaingoetako kideak Nafarroako Polizia Kide-

goei buruzko otsailaren 13ko 1/1987 Foru Legearen 37. artikuluan ezarritako sailkapenaren B mailan sartuko dira.

Zioak:

Sailkapena errealitatearekin bat etortzea, sarjentuek badituztelako zenbait eginkizun, eta polizien eta kaboen maila berean sartzeak antolaketa arazoak ekarriko ditu, bai eta polizia kidegoen funtzionamendu onerako koordinazioa eta hierarkia okerragoak izatea ere.

3. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa

16. artikuluari 2. idatz-zatia gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“16. artikulua. 2. Foru lege honek indarra hartzeko unean, sarjentu lanpostuetan ari diren Foruzaingoko edo Udaltzaingoetako kideek C mailan segituko dute, ehuneko 75eko berariazko osagarriarekin, eta iraungitzeko egoera pertsonalean. Urtebeteko epean, administrazio eskudunek oposizio baterako deialdi bat, bakarra, eginen dute, prestakuntza ikastaroa barne, eta horren bitartez igo ahal izanen dira B mailara aipatutako kideak”.

Zioak:

Plan zuzendarian xedatutakoaren eta poliziak eta kaboak D mailan eta sarjentuak C maila birsailkatzearen ondorioz proposatzen den aginte egitura eta lanbide karrera direla eta gertatzen den egoera iragankorra arautzea.

4. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa

16. artikuluari 3. idatz-zatia gehitzen zaio. Hona testua:

“16. artikulua. 3. Toki entitateetako funtzionarioak, foru lege honek indarra hartzean ondotik ageri diren baldintzak betetzen dituztenak, C mailan sartuko dira, ‘albiente’ izenarekin.

Lanpostu hauetako bat betetzen egotea: zaindaria, zaintzailea, agentea, albiente, gauzaina edo baliokidea, D mailakoa.

Delako lanpostua Nafarroako polizia kidegoei buruzko otsailaren 13ko 1/1987 Foru Legeak indarra hartu ondotik eskuratu baldin bada, foru lege horren 12.2 artikulua aipatzen duen prestakuntza ikastaroa gainditu izana.

Indarra hartu aurretik eskuratu baldin bada, berriz, udaltzaingoaren eginkizunak agente armadun gisa egiaz bete izana ordura arte”.

Zioak:

C mailan birsailkatzeari dagokionez, parekatzea albienteak eta antzekoak udaltzaingoaren kideekin. Foru lege proiektuan xedatutakoa aplikatuta gerta litekeen bidegabekeria saihestea da helburua, badirelako zenbait albiente funtzionario bihurtu direnak udaltzaingoetan erabiltzen denaren berdin-berdina den hautapen prozedura baten bitartez, prestakuntza ikastaro berdina (askotan, ikastaro bera, albientegaiak eta udaltzaingaiak ikasgelan batera) egin dutenak Segurtasun Eskolan, eta eginkizun berdinak edo antzekoak betetzen dituztenak (zenbateraino eta udaltzaingoren bat plantillaren arabera albiente ziren funtzionarioak sartuz sortzeraino). Asmoa da, beraz, egoera beretsuan daudenei tratamendu beretsua ematea. Birsailkapenetik kanpo geldituko lirateke prestakuntza hori hartu ez dutenak eta eginkizun berdinak betetzen ez dituztenak, albientearen edo antzekoaren izena badute ere.

5. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

17. artikuluari gehiketa egiteko zuzenketa

17. artikuluari 2. idatz-zatia gehitzen zaio, testu honekin:

“17. artikulua. 2. Foru Lege honek indarra hartzeko unean, suhiltzaile lanpostuetan ari diren funtzionarioek kaboaren kategoriara igotzeko prozesuetan parte hartu ahaliko dute edozein kasutan; sarjentuaren kategoriara igotzeko prozesuetan parte hartzeko, ordea, batxilergoko, bigarren mailako lanbide heziketako edo antzeko titulua izatea eskatuko zaie. Foru lege honek indarra hartzean suhiltzaile-ofizialaren lanpostu batean, C mailan, ari diren funtzionarioek kategoria horri eutsiko diote, iraungi beharreko egoera pertsonalean. Funtzionario horiek A mailako suhiltzaile-ofizialaren lanpostuak betetzeko deitzen diren oposiziolehiaketetan parte hartu ahal izanen dute, goi mailako titulaziorik izan gabe ere, betiere suhiltzaile-ofizial edo ofizialorde gisa egiaz eman-

dako zerbitzuetan bost urteko antzintasuna badute”.

Zioak:

Zuzenketaren xedea da, aurreko zuzenketan suhiltzaileen lanbide karreraren erregulazioa ezartzeko proposatutakoarekin bat, erregulazio horren eta suhiltzaileak eta suhiltzaile kaboak C mailan birsailkatzearen ondorioz gertatzen diren egoera iragankorrak arautzea.

6. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

IV. kapituluaren, 18 eta 19. artikuluen artean artikulua berri bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“18 bis artikulua berria: Foru lege honek indarra hartzeko unean, Foruzaingoko sarjentu, udaltzaingoetako sarjentu, Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuko sarjentu eta Ingurumen Departamentuko zaindari nagusi eta mendi zaindario lanpostuetan ari diren Nafarroako Administrazio Publikoen eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileak Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatuan ezarritako sailkapenaren B mailan sartuko dira”.

Zioak:

Sailkapena errealitatearekin bat etortzea, sarjentuek badituztelako zenbait eginkizun, eta polizien eta kaboen maila berean sartzeko antolaketa arazoak ekarriko ditu, bai eta polizia kidegoen funtzionamendu onerako koordinazioa eta hierarkia okerragoak izatea ere.

7. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

10. artikulua testu honekin ordeztzea:

“10. artikulua: 37. artikulua testua haxe izanen da:

37. artikulua.

Nafarroako administrazio publikoen menpeko polizia kidegoetako funtzionarioak maila hauetan egonen dira:

- a) Ofizialak: A maila.
- b) Sarjentuak: B maila

c) Poliziak eta kaboak: C maila”.

Zioak:

Sailkapena errealitatearekin bat etortzea, sarjentuek badituztelako zenbait eginkizun; polizien eta kaboen maila berean sartzeko antolaketa arazoak ekarriko ditu, bai eta polizia kidegoen funtzionamendu onerako koordinazioa eta hierarkia okerragoak izatea ere.

8. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Xedapen gehigarri berri bat gehitzeko zuzenketa. Haxe da testua:

“Hirugarrena: Aurreko aldaketak –B eta C mailatan sartzeko dagokionez– egiteak ekarriko duen kostu garbi orokorra osotara finantzatzeko behar diren zenbateko osagarriak Nafarroako aurrekontu orokorren kargura ordainduko dira”.

Zioak:

Nafarroako Gobernuak da funtzio publikoaren estatutuan aldaketa hauetarako konpromisoa hartu duena; Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioko ordezkariak onartu egin zituzten, neurrien kostuaren gehikuntza Nafarroako Gobernuak ordaintzeko baldintzarekin.

9. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa

Azken xedapenetako lehenari testu hau gehitzeko:

Hiru hilabeteko epean, Nafarroako Gobernuak Nafarroako polizia kidegoei buruzko Foru Legearen testu batekin bat prestatu eta onetsiko du legegintzako foru dekretu bidez.

Zioak:

Otsailaren 13ko 17/1987 Foru Legeak izan ditu dagoeneko zenbait aldaketa, horrexegatik komeni izanen litzateke testu batekin edukitzea, segurtasun juridikoa bermatzeko.

10. ZUZENKETA

**NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA**
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Zioen azalpeneko 7. lerrokadari gehiketa egiteko zuzenketa. Hona testua:

Era berean, Foruzaingoko sarjentuak, udaltzaingoetako sarjentuak, Nafarroko Foru Komunitateko suhiltzaileen kidegoko sarjentuak, zaindari

nagusiak eta mendi zaindarioordeak B mailan sartuko dira.

Zioak:

Sailkapena errealitatearekin bat etortzea, sarjentuek badituztelako zenbait eginkizun; polizien eta kaboen maila berean sartzeak antolaketa arazoak ekarriko ditu, bai eta polizia kidegoen funtzionamendu onerako koordinazioa eta hierarkia okerragoak izatea ere.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Abereen osasunari buruzko Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Biltzarreko Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoa betez, abereen osasunari buruzko Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamenari egin zaizkion zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agindu dut. Proiektu hori 2000ko abenduaren 12ko 109 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko apirilaren 5ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

1. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa

26. artikulua 2 zenbakiari bigarren lerroka da gehitzeko zuzenketa. Hauxe da testua:

“Halere, Europar Batasuneko araudian debekaturik ez dauden animalia azpiproduktuak animaliak elikatzeko erabili ahal izanen dira, araudi horrek berak ezartzen duen moduan”.

Zioak:

Foru lege proposamenaren aurreikuspenak eta Europar Batasuneko araudia (animalientzako jakietan zenbait animalia produktoren erabilera debekatzeko duen 2000ko abenduaren 27ko 2001/25/CE Erabakia) bateragarri egitea.

2. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa

4. artikulua aldatzea:

"4. artikulua.

Laugarren xedapen gehigarri bat eransten da. Hona haren testua:

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak ziurtatu beharko du osagaien artean Europar Batasuneko araudiak debekaturiko animalia azpiproduktuak dauzkaten animalientzako pentsu konposatuak suntsitzen direla."

Zioak:

Teknika juridikoko akatsak zuzentzea.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Oihan Plana betearazteko neurriak har ditzan

LURRALDEAREN ANTOLAMENDU, ETXEBIZITZA ETA INGURUGIRO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Batzordeak, 2001eko apirilaren 10ean eginiko bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Oihan Plana betearazteko neurriak har ditzan".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko apirilaren 11n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Oihan Plana betearazteko neurriak har ditzan

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du bederatzigarren hilabeteko epean,

Nafarroako Oihan Plana betearaztearen, ondokoak aurkez ditzan:

a.- Lege-multzotako berri bat; hartan jasoko dira: Nafarroako mendiak direla-eta toki administrazioaren esparruan gertatu diren aldaketak, mezenazgoa eta fundazioak, zergak eta pizgarriak mendien kudeaketaren arabera ezartzeko sistema berri bat, lurren dohaintzetarako zerga-arinketak.

b.- Oihan Museoa sortzeko proposamena, Nafarroako Oihan Planean azaltzen denari jarraikiz.

c.- Nafarroako oihan-pistei buruzko plan orokorra, Nafarroako Oihan Planean ezartzen denari jarraikiz.

d.- Iruñerrian oihan-hondakineterako energia-zentroa sortzeko beharrezkoa den bideragarritasun azterlana.

I saila:
PARLAMENTUKO JARDUERA

2001eko martxoan egindako bilerak

MAHAIA

1ean.

MAHAIA ETA ELEDUNEN BATZARRA

5, 7, 9, 12, 19, 21, 22 eta 26an.

OSOKO BILKURA

1ean.

– Nafarroako 1999ko Kontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua irakurketa bakarrean eztabaidatu eta bozkatzea.

– Garapenaren aldeko lankidetzari buruzko Foru Lege proiektuari buruz Gizarte Gaietarako Batzordeak onetsitako irizpena eztabaidatu eta bozkatzea.

– Abereen osasunari buruzko Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aintzat hartzea, hala erabakiz gero. Foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak aurkeztu du.

– Castejónen ikasleen hezkuntza-zerbitzua mantentzeko buruz Nafarroako Parlamentuak 2000ko ekainaren 30ean hartutako erabakia betearazteko Foru Lege proposamena aintzat hartzea hala erabakiz gero. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batuak aurkeztu du.

– Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bitartez, Nafarroako Gobernua premiatzen da akusazio partikular gisa aurkez dadin emakumeen aurkako tratu txarreko kasurik larrietan.

– Foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bidez, Estatuko Gobernua premiatzen da Plan Hidrologiko Nazionalaren proiektua erretira dezan.

– Plan Hidrologiko Nazionalaren proiektuari buruzko adierazpen politikoa berrestea; Eledunen Batzarrak onetsi zuen 2001eko otsailaren 19an.

6an:

– a) Foru Lege proiektua, Mendigorriko Udalaren herrilurreko 116.020 metro koadroren onura publikoa deklaratu eta haien desafektazioa onesten duena, zuzenean eta irakurketa bakarrean bideratzea, hala erabakiz gero.

b) Foru Lege proiektua, Mendigorriko Udalaren herrilurreko 116.020 metro koadroren onura publikoa deklaratu eta haien desafektazioa onesten duena, eztabaidatu eta bozkatzea.

– 2001-2004 urteetarako Etxebizitza Plana egitean irizpide jakin batzuk aintzat hartzeko buruzko mozioa eztabaidatu eta bozkatzea, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua.

– Urpekoaren aurkako Plataformarekin eta Gibraltargo Eskualdeko Udalen Mankomunitatearekin Tireless urpeko nuklearra Britainia Handira eramanez bat egiteari buruzko mozioa eztabaidatu eta bozkatzea, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak aurkeztua.

– Anorexia eta bulimia duten gaixoen baldintzei, ezaugarriei eta tratamenduari buruz Osasun Departamentuak txosten bat aurkezteari buruzko mozioa eztabaidatu eta bozkatzea, foru parlamentari Begoña Errasti Esnal andreak aurkeztua.

– Osasun arloko fakultatiboei lanbide-karrera aplikatzeko baremoak onesteari buruzko mozioa eztabaidatu eta bozkatzea, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua.

– Behi eroen gaitzari aurrea hartzeko neurriari buruzko mozioa eztabaidatu eta bozkatzea, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua.

– Balizko legionella brote bati aurrea hartzeko neurriari buruzko mozioa eztabaidatu eta bozkatzea, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua.

– Pentsuen fabrikazioan animalien irinak erabiltzea debekatzeari buruzko mozioa eztabaidatu eta bozkatzea, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua.

– Eledunen Batzarrak 2001eko martxoaren 5ean martxoaren 8a ospatzeko onetsitako adierazpen instituzionala berrestea.

22 eta 23an:

– Nafarroan saltoki handien antolamendua arautzen duen Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoko zuzenketak eztabaidatu eta bozkatzea.

– Lurzatien edo lurzatiean dauden eraikinen salerosketa eta trukeetan lehentasunez erosi eta atzera eskuratzeko eskubideaz baliatzeko eskualdeak mugatzen dituen Foru Lege proiektuari aurkeztutako zuzenketak eztabaidatu eta bozkatzea.

– Nafarroako Foruzaingoan polizia judizialeko unitateak antolatzeko Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoko zuzenketa eztabaidatu eta bozkatzea. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztu du osoko zuzenketa.

– Farmazien zerbitzua arautzen duen apirilaren 25eko 16/1997 Legea aldatzeko Lege proposamena dela-eta, Osasun Batzordeak onetsitako irizpena eztabaidatu eta bozkatzea.

– Nafarroako Foru Komunitateko eta haren erakunde autonomoen tasa eta prezio publikoei buruzko Foru Lege proiektua dela-eta, Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordeak onetsitako irizpena eztabaidatu eta bozkatzea.

– Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da oinarrizko osasun laguntza emateko behar adina farmazialari lanpostu sardezan plantilla organikoan.

– Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da enpresa publikoetako langileen negoziazio kolektiboa abian jar dezan.

– Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Valtierra zenbait etxe erortzearen ondorioz neurriak har ditzan.

– Parlamentuak ebazpenak onetsi eta Nafarroako Gobernuak bete ez izanari buruzko galdera, foru parlamentari Félix Taberna Monzón jaunak egina.

– Nafarroako lan istripuei buruzko adierazpen politikoa berrestea; Eledunen Batzarrak 2001eko martxoaren 5ean onetsi zuen.

– Zisjordania, Gaza eta Jerusalemeko lurralde palestinarrei buruzko adierazpen politikoa berrestea; Eledunen Batzarrak 2001eko martxoaren 5ean onetsi zuen.

– Espainiako atzerritarren eskubide eta libertatei buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoa aldatzen duen abenduaren 22ko 8/2000 Lege Organikoaren lehenbiziko artikuluen 5, 6, 7, 9, 12, 13, 14, 16, 20, 50, 53 eta 56 atalen kontra konstituziokontraotasuneko errekurtsioa jartzeari buruz Eledunen Batzarrak martxoaren 22an hartutako erabakia dela-eta, dagokion erabakia hartzea.

29an:

– Nafarroako tributuetan parte hartzeko fondoa zenbat den eta nola banatuko den 2001etik 2003ra bitarteko aurrekontualdian ezartzen duen Foru Lege proiektua. Toki Administrazioako Batzordeak onetsitako irizpena eztabaidatu eta bozkatzea.

– Gizarte Eskubideen Gutunaren aldeko apirilaren 6ko 9/1999 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aintzat hartzea, hala erabakiz gero. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztu du.

– Gizarte Eskubideen Gutunaren aldeko apirilaren 6ko 9/1999 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aintzat hartzea, hala erabakiz gero. Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak aurkeztu du.

– Socialistas del Parlamento de Navarra aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da genero-indarkeriaren aurkako plan integral bat presta dezan.

– Bardeako tiro poligonoak ingurumenean duen eraginari buruzko azterlan bat egiteari buruzko mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak aurkeztu du.

– Errege Bardearen edukitza berreskuratzea erabakitzeari buruzko mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak aurkeztu du.

– Nafarroako Gobernuak aurrekontuaren egonkortasunari buruzko Lege proiektuaren aldaketa Estatuko gobernuarekin negoziatzeari buruzko mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Nafarroako

Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztu du.

– Nafarroako Foru Komunitateko administrazioan karguen kopurua handitzeari buruzko galdera. Foru parlamentari Félix M.^a Taberna Monzón jaunak egin du.

LURRALDEAREN ANTOLAMENDU, ETXEBIZITZA ETA INGURUGIRO BATZORDEA

2an:

– Lan bilera. Bertan Ongaiz-Zangoza eskualdeko "Ekologistak Martxan" taldeak Zangozako biomasa-zentralaren kokapenaren berri emanen du; eta Nafarroako Ehiztarien Elkarteak (ADECANNA), Europar Batasunaren ardurako tokien deklarazioaren berri emango du.

15ean:

– Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren agerraldia, Esako urtegian izaniko lohi-uholdeari buruzko informazioa eman dezan, bai eta arrain-haztegia eta Aragoi ibaian izaniko isurkinaren ondorioei buruzko informazioa ere.

– Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren agerraldia, iaz, abuztuaren 24an, Ezkaba mendian izaniko sutea dela eta, departamentuak eginikoari buruzko informazioa eman dezan.

EKONOMIA, OGASUN ETA AURREKONTU BATZORDEA

7 eta 9an:

– Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen Tasa eta prezio publikoei buruzko Foru Lege proiektua eztabaidatu eta bozkatzea, bai eta horri aurkeztutako zuzenketak ere.

16an:

– Kontuen Ganbarako Lehendakariaren agerraldia, Eledunen Batzarrak eskatuta, "Canal 4 S.L.n programa didaktikoak finantzatzeko Nafarroako Gobernuak egindako gastuen efizientzia eta eraginkortasuna" izeneko txostena azaltzeko.

BEHI-AZIENDAREN ENTZEFALOPATIA ESPONGIFORMEAREN JARRAIPENA ETA KONTROLA EGITEKO BATZORDE BEREZIA

8an:

– Proposamenak.

27an:

– José Antonio García de Jalón eta Marcelo de las Heras jaunen agerraldia (Zaragozako Unibertsitateko Albaitaritza Fakultatea).

– Ana Puras Gil andrearen agerraldia, Virgen del Camino Ospitaleko Anatomia Patologikoaren zerbitziburua.

28an:

– Javier Gost Garde jaunaren agerraldia, Nafarroako Ospitaleko Aurreneurrien Medikuntzako eta Kalitatearen Kudeaketarako zerbitziburua.

30an:

– Ondoko jaunen agerraldia: Ignacio Javier Martínez Alfaro, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilaria; Francisco Javier Enériz Olaechea, Nekazaritza eta Abeltzaintza zuzendari nagusia; Andrés Eciolaza Carballo, Nekazaritzako Azpiegitura eta Elikagaien Industrien zuzendari nagusia.

FORU ARAUBIDEKO BATZORDEA

8an:

– Nafarroako Gobernuako Lehendakariaren agerraldia, Eledunen Batzarrak hala eskatuta, informazioa eman dezan Plan Hidrologiko Nazionalaren proiektuari buruz eta Nafarroan izango duen eraginari buruz.

– Nafarroako Gobernuako Lehendakariaren agerraldia, Eledunen Batzarrak hala eskatuta, informazioa eman dezan humanitate arloko testu liburuak argitaratzeko asmoari buruz.

ELKARBIZITZAREN ETA NAZIOARTEKO ELKARTASUNAREN BATZORDE BEREZIA

9 eta 21ean:

– Saharako herriari buruzko proposamena eztabaidatu eta bozkatzea, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak aurkeztua.

– Uranio pobretuari buruzko proposamena eztabaidatu eta bozkatzea, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak aurkeztua.

– Melitón Manzanasi Meritu Zibilaren Domina emateko erabakia baliogabe uzteari buruzko proposamena eztabaidatu eta bozkatzea, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak aurkeztua.

– Alderdi Popularraren Gobernuaren inmigrazio arloan aplikatzen ari den politikari buruzko proposamena eztabaidatu eta bozkatzea, Izquierda

Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztua.

– Etorquinei buruzko adierazpen politikoa, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak aurkeztua.

– Lan bilera. Bertan Kiraz Biçici, giza eskubi-deen alde lan egiten duen andre kurduak, eta Medya TV, Europarako telebista kurduko erredaktoreak herri kurdua bizi duen egoearen berri emango dute.

TOKI ADMINISTRAZIOKO BATZORDEA

13an:

– Toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko fondoak zenbat den eta nola banatuko den 2001etik 2003ra bitarteko aurrekontualdian ezartzen duen Foru Lege proiektua eztabaidatu eta bozkatzea, bai eta proiektu horri aurkeztutako zuzenketak ere.

– Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Mozio horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Pirinioko ekialdeko ibarren garapen sozioekonomikorako plan bat prestatzeko.

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO PUBLIKO ETA BARNE BATZORDEA

14an:

– Lan bilera. Bertan ondoko taldeek Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboari buruzko Foru Lege proiektuaren gaineko informazioa emango dute: UGT, CCOO, AFAPNA, ELA/STV, LAB eta ASIT sindikatuak, eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa.

– Lan bilera. Bertan Foruzaingoaren Sindikatuen Foruzaingoaren antolamendu eta eginkizunei buruzko 1994-2000rako plan zuzendariaren bete-tze mailari buruzko informazioa emango du.

– Lan bilera. Bertan Udaltzainen Sindikatuen Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileentzako neurriari buruzko Foru Lege proiektuari buruzko informazioa emango du.

16an:

– Kontuen Ganbarako Lehendakariaren agerraldia, Eledunen Batzarrak eskatuta, "Administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboen sistemak Foru Ogasunean izanzen dituen eraginak" izeneko txostena azaltzeko.

GIZARTE GAJETARAKO BATZORDEA

15ean:

– Lan bilera. Bertan, alargunen pentsioak parekatzearen aldeko plataformako ordezkariak batek egin dituzten azken jarduketari buruzko informazioa emango du.

NAFARROAKO INMIGRAZIO POLITIKAREN ILDOAK EZARTZEKO IRIZPIDE NAGUSIAK AZTERTZEKO BATZORDE BEREZIA

20an:

– Lanen jarraipena.

HEZKUNTZA ETA KULTURA BATZORDEA

20an:

– Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bitartez, Nafarroako Gobernua premiatzen da batzorde bat era dezan, hezkuntza etapatan hainbat ikasgairen irakaskuntza aztertzeko.

– Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bitartez, Nafarroako Gobernua premiatzen da etorkinen beharrei hezkuntza sisteman erantzuna emateko arau-proiektu bat aurkez dezan Nafarroako Gobernuan.

– Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bitartez, Nafarroako Gobernua premiatzen da musikako goi mailako ikasketak arautzeko foru lege proiektu bat egin dezan.

27an:

– Eskola liburutegiak berritzeko plana dela-eta aurkeztutako proposamenak eztabaidatu eta bozkatzea.

30ean:

– Lan bilera. Bertan, Auditorio eta Biltzar Jauregiko arkitekto, Mangado jaunak San Antongo bastioiko horma-bularrak bota izanari buruz informatuko du.

HERRILAN ETA AZPIEGITURA BATZORDEA

27an:

– Lan bilera. Bertan, Antonio Casas Sainz Zaragozako Unibertsitateko irakasleak Itoizko urtegiaren lubizak izateko arriskuei buruzko azterlan bat egin baitu, agerraldia eginen du Itoizko

Koordinakundeko ordezkariak batekin azterlanaren edukia azaltzeko.

– Lan bilera. Bertan, Arturo Rebollo Alonso bide-ingeniariak, Itoizko urtegian hondamendi-arriskuei buruzko txosten analitiko bat egin baitu, agerraldia eginen du Itoizko Koordinakundeko ordezkariak batekin txostenaren edukia azaltzeko.

OSASUN BATZORDEA

28an:

– Kontseilarien agerraldia, Osasun kontseilariarena eta Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilariarena hain zuzen, Eledunen Batzarrak eskatuta. Laguntza soziosanitariorako foru plan bat egiteari buruzko informazioa emanen dute.

– Toxikologia klinikoko unitate bat sortzeari buruzko mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztu zuen.

INDUSTRIA, LAN, MERKATARITZA ETA TURISMO BATZORDEA

30ean:

– Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilariaren agerraldia, Eledunen Batzarrak eskaturik, lan prekarietatearen aurkako politikei buruzko informazioa emateko.

– Sexua dela-eta lanean diskriminaziorik egin ez dela ikuskatzeko programa bat sustatzeari buruzko mozioa. Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztu zuen.

GAZTEENTZAKO POLITIKA OROKORRAK AZTERTZEKO BATZORDE BEREZIA

30ean:

– Lanei berriro ekitea.

Biltzarreko Idazkaritza Orokorrean 2001eko martxoan sartu diren dokumentuen zerrenda

1ean:

– Idazkiak, Beatriz García el Busto eta María Virto andreena. Horien bitartez, legegariak aldi baterako kontratatzeko zerrenda osatzeko oposizio-lehiaketan parte hartzea eskatu dute.

– Idazkia, Errioxako Parlamentuarena. Haren bitartez, Biltzarren osoko bilkurak Sahara Mendebaldeari buruzko adierazpen instituzionala onetsi zuela adierazi du.

– Idazkia, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldearena. Haren bitartez, Udaltzainen sindikatuak Lehendakariak Batzordean agerraldia egitea eskatu du, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileentzako neurriei buruzko Foru Lege proiektuaren gainean zein jarrera duten azal dezaten.

– Idazkia, Itoizko Koordinakundearena. Haren bitartez, Rebollo jaunari Batzordera joatea ezinezkoa zaiola jakinarazi duelako idazkia jaso izanaren berri eman du.

– Osoko zuzenketa, Lurzati edo lurzatieta dauden eraikinen salerosketa eta trukeetan lehenetasunez erosi eta atzera eskuratzeko eskubideak baliatzeko eskualdeak mugatzen dituen Foru

Lege proiektuari foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak aurkeztua.

– Adierazpen politikoa egiteko proposamena, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egin, Palestinako Aginte Nazionalen nazioarteko ordezkari Fayed A. Saqqa jaunaren agerraldia dela eta.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horrekin batera, Plan Gerontologikoan aurreikusitako zahar-etxeak eraikitzeari buruz foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak eginiko galderaren erantzuna.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horrekin batera, Galarko lurretan etxebizitzak eraikitzei auzerari eta Iruñean Teknologia Berrikuntzako Parkea instalatzeari buruz foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak eginiko galderaren erantzuna.

– Idazkia, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andrearena. Haren bitartez, Parlamentuko lehendakariari eskatu dio foru parlamentari Alberto Catalán Higuera jaunari jakinarazi diezaiola 2001-02-22ko Osoko Bilkuran alderdi abertzaleak direla eta egin zituen adierazpenak ez datozela bat Parlamentuan gorde beharreko giza legearekin.

– Nafarroako 2001etik 2004ra bitarteko etxebizitzita plana, Nafarroako Gobernuak igorria.

2an:

– Martxoaren 8a ospatzeko adierazpen politiko egiteko proposamena. Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztu du.

– Osoko zuzenketa, Lurzatien edo lurzatieta dauden eraikinen salerosketa eta trukeetan lehenetasunez erosi eta atzera eskuratzeko eskubideaz baliatzeko eskualdeak mugatzen dituen Foru Lege proiektuari Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua.

